

PROIEKTUA

GOIENER



KOKAPENA

Ordizia, Gipuzkoa, EH.

“
ERALDAKETA PROZESU
HONETAN JENDARTEAREN PARTE
HARTZEA ETA EREDU
ENERGETIKO BERRIEN
INGURUAN AHALDUNTZEA DIRA
GURE HELBURUETAKO BATZUK.
”

- @Goiener
- @GoiEner
- www.goiener.eus



KOKAPENA

GOIENER, %100 berriztagarria den energia ekoizteko eta kontsumitzeko sortu den kooperatiba bat da. Irabazi asmorik gabekoa, herritarra eta argi-indar berriztagarriaren eskaera areagotuz eredu energetikoa aldatzea helburu duena.

BEHAR SOZIALA

Gure helburuetako bat da jendarte eraldaketa prozesu honetan parte aktibo izatea. Horretarako jendartearen parte-hartzea bultzatuaz eta eredu energetiko berrien inguruan ahaldunduz. Horretaz gainera, Pobrezia Energetikoari aurre egiteko lanketan gabiltza, herritar eta instituzio ezberdinekin. Pobrezia Energetikoa ondoko baldintza hauen ondorio dela uste dugu: gaur egungo argi-indar merkatuaren salneurri altuak, gaiaren inguruko ezagutza falta eta argi-indarra bezalako oinarritzko baliabide batekin egiten den espekulazioa.

Kontsumitzaileoi hain arrotz eta ulergaitz egiten zaizkigun argi-indarraren fakturak eta Merkatu Elektrokoak nola funtzionatzen duten argitzeko tailerrak antolatzen ditugu non-nahi, eta bide batez, kontsumo arduratsuago bat egiteko aholkuak eman.

Gure baitan ditugun lantalde ezberdinetan, gure alorrekin lotura zuzena duten hainbat gai jorrazteko aukera ere izaten dugu: mugikortasun jasangarria, argi-indar ekoizpena, hezkuntza, azokak eta txanpon lokala, besteak beste.



EGUNGO EGOERA

2017ko irailan 17 langile gara; 4 bulego, Ordizia, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta bosgarrena irekitzeaz daukagu Iruñean; 7.000 bazkidetik gora, tartean 40tik gora Udaletxe eta enpresa txiki eta ertain. Proiektu ezberdinak aztertzen ari gara eta urtea bukatu baino lehen gure hasierako helburuetako bat betetzeko asmoa daukagu: argi-indarra ekoizten hasteko aukera. 120 boluntariotik gora ditugu errolatuta Goiener Elkartearen. Elkarte hau sortu dugu lan-talde horretan parte hartzen dutenei ikusgarritasuna eta babesa emateko, lantaldeetan jorrazten diren proiektuak bideragarriak izateko. Gure egunerokotasunean garrantzitsutzat jotzen dugu kooperatibaren tokikotasuna. Lekuko garapen ekonomiko-soziala eta hurbiltasuna baitira gure xedeak.

Aldi berean, beste eskualde batzuetako kooperatiba energetikoei lehen urratsak ematen laguntzen ari gara, gure ibilbideak eman digun eskarmentua eta momentuan ditugun tresnak eta ezagutzak beraien esku jarriz; gisa honetara talde bakoitzak bere inguruko baldintza ekonomiko- sozialak indartzeko aukera izan dezaten.

Kooperatiben arteko elkarlana ezinbestekoa da talde hauekin ditugun komuneko asmoak gauzatzeko, helburu horrekin estatu mailan sortu berri den Union Renovables (lehen UNCCUER) izena duen kooperatiben elkarte eratu dugu eta Europa mailan berriz arlo berean jarduten duen RESCOOP taldeko kide ere bagara. Europako 62 kooperatiba herritarren federazioa da RESCOOP, 250.000 kide baino gehiago biltzen dituena, eta guztiak egiten dute eraginkortasun energetikoaren eta kontsumo arduratsuen alde.

OBJETIVO

Uno de nuestros objetivos en este proceso de transformación es que la sociedad sea una parte activa, para ello creemos en la participación ciudadana y en el empoderamiento en torno a los nuevos modelos energéticos. Además, estamos trabajando en contra de la Pobreza Energética con diferentes entidades y ciudadanos.

DESCRIPCIÓN

GoiEner es un proyecto cooperativo de generación y consumo de energía renovable con el que se quiere recuperar la soberanía energética. Es una entidad sin ánimo de lucro, popular y que pretende cambiar el modelo energético actual aumentando la solicitud de electricidad renovable

RETOS

Estamos analizando diferentes proyectos y queremos conseguir uno de nuestros objetivos antes de que finalice este año: comenzar a producir energía. En nuestro día a día damos mucha importancia a que la cooperativa esté implantada en el entorno en el que se encuentre. Nuestros objetivos son el desarrollo económico y social local y la cercanía. Estamos ayudando a cooperativas energéticas de otras zonas a dar sus primeros pasos, para que así cada grupo pueda aportar en la socioeconomía del territorio en el que está ubicada.

“
Algunos de nuestros objetivos en este proceso de transformación son la participación ciudadana y el empoderamiento en torno a los nuevos modelos energéticos.
”